


txintxarri



Euskaraldiko 'ahobizi' eta 'belarriprest' txapak astearretik aurrera jaso ahalko dituzte herritarrek / 3

Lasarte-Oriako bertsolaritzak harrobi sendoa du; aurten 8 talde daude Oriarte Institutuan lanean / 4

Atzerrian ikasten ari diren hiru gazteren bizipenak bildu ditu TXINTXARRI-K / 8-9

Dozenaka herritarrek parte hartu dute, "giro izugarrian", 54. Behobia-Donostia lasterketan / 12



Umore ona nagusi Euskal Jaian

Euskal giroa nabaria izan da Lasarte-Oriako erdigunean / 6-7

Zabaleta auzoak badu frontoia

Pilotalekua inauguratzeko, igandean egitarau berezia eta pilota jaialdia antolatu du Zabaleta Auzolan elkarteak / 10

Badator hotza! Ez zaitzala bat-batean harrapatu

ATERPEA

ELECTRICIDAD ARREGUI

600 857 586
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

Berogailu tresnetan:

- Aire termohaizagailuak.
- Aire berogailuak.
- Olio erradiadoreak.
- Konbektore-berogailuak.
- Berogailu bertikala mandoarekin.

eta ehun-berogailuetan:

- Kuxin termikoak.
- Kuxin elektrikoak.
- Bota termikoak.
- Kuxin lunbar eta zerbikala.
- Manta termikoak.

Aukera zabala hotzari aurre egileko

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21



Udaleko alderdiak azaroko ohiko udalbatzarra egin zuten astearte arratsaldean. TXINTXARRI

Plazaolako bide berdea, eztabaidarako gai

Udaleko ohiko batzarrean hiru gai osatu dute gai zerrenda: Plazaolako bide gorria, Atsobakar zaharren egoitzaren handitzea, eta emakumeen aurkako indarkeriaren eguna. Halere, galdera eta erreguen tartean ere hizketarako gai bat baino gehiago atera dituzte mahai gainera

Maddi Zaldua

Azaroko ohiko udalbatzarrean bildu dira udal ordezkariak, astearte arratsaldean. 18:30ean hasi da hitzordua, eta gai zerrendako lehenengo puntuari heldu diote segituan. Atsobakarreko egoitzak zabaltu du saioa; eraikina handitzeko proposamena jarri dute mahai gainean, eta azalpenak eman aurretik, bozkatu egin dute gaia. Aldeko 11 bozka (PSE-EEko zazpi, EAJko bi eta ADLOP Ahal Du Lasarte-Oria Pue deko bi) jaso ditu. EH Bilduk kontrako bozka eman du, baina ez egoitzaren handitzearen aurka dagoelako; finantziazioaren bidetik etorri da desadostasuna. Argi azaldu du Pablo Barrio alderdiko bozeramaileak herritarren eskariari erantzuteko "beharra" dagoela. Egoitza zabaltzearekin bat datorren arren, salatu du publikoa beharko lukeen proiektu bat "pribatizatzea" ekarriko duela: "Lizitazioa irabazten duen enpresari hobari batzuk emango

zaizkio, eta horren aurka gaude. Horren ondorioz agertu gara mozioaren aurka".

Plazaola bidegorriaren loturak

Irailaren 16an Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko diputatu Marisol Garmendiak Plazaolako bide berdea Donostiarekin lotzeko lanak amaitutzat eman zituen. Baina EH Bilduk salatu du lan horietan Lasarte-Oriako zatia proiektutik kanpo utzi duela. PSE-EEK mozio transakzional bat proposatu dio EH Bilduri, Plazaolako bidegorri sarearen alde egiteko, baina ez dira erabateko akordiora iritsi; alderdi bakoitzak berea jarri du mahai gainean.

Barriok azaldu du bi proposamenak "funtsean antzekoak" direla, baina uste du sozialistenari "konpromisoa falta" zaiola. Beraz, EH Bilduk ez du bat egin PSEko Agustin Valdiviak aurkeztutakoarekin: "Desio moduan geratu daitezke hitzak, eta guk epeak behar ditugu".

Edonola ere, EH Bildurena baztertu egin dute bozketan. ADLOPen babesa jaso du, baina aurkako bozka gehiago (PSE-EE eta EAJ) izan dira. Horrek PSE-EEren proposamena onartzea ekarri du. ADLOPeko zinegozi David Aresek eskaera bat egin die sozialistei; urte amaierarako bidegorriaren lanak egiteko eska diezaiotela Garmendiari. Valdibiak onartu egin du, eta aldeko hamabi bozkekin aurrera atera dute.

Bestalde, EH Bilduk hirugarren mozio batean eskatu du emakumeen kontrako indarkeria ezabatzea, eta horretarako ezinbestekoak diren zenbait neurri aurkeztu dizie gainerako alderdiei. EH Bildurena bertan behera geratu da, eta aho batez Eudelek proposatutako adierazpena onartu dute.


Galdera eta erreguen tartean ere hizketarako gai bat baino gehiago bildu ditu, herritarrek ere kezka azaldu baitituzte.



TXINTXARRI

Biktimak oroitzeko, ia guztiak bat

"Terrorismoaren eta motibazio politikoko edozein indarkeriaren biktimak guztiak" oroitu dituzte udal ordezkariak, Askatasunaren parkean. Testu bat irakurri dute aurrean, eta bost minutuko isilunea gorde gero. Ondoren, larrosa zuri bana jarri dute parte hartzaileek Gotzon Huegunen *Biharraren oroipena* plaka gaineko lorontzian. PPK ez beste alderdi guztiek parte hartu dute.



Asensio eta Zaballos akordio sinatzen. TXINTXARRI

Airearen kutsadura neurtzeko azpiegitura indartuko dute

Ekipamendu berriak erosi ditu GHK-k, erraustegiaren ondorioz "parametroak gaintzen ez direla bermatzeko"

Txintxarri

Akordioa sinatu dute Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak eta Lasarte-Oriako Udalak, Tximistarreta parkean dagoen airearen kalitatea neurtzeko azpiegitura indartzeko. Jose Ignacio Asensio Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioako presidentea eta Ingurumen diputatua Lasarte-Orian bildu da Jesus Zaballos alkatearekin, lankidetzaz hitzarmena sinatzeko.

Berez, orain bertan dagoen ekipamenduak betetzen ditu legeak ezarritako baldintzak. Erraustegiak airearen kalitatean izango duen

eragina neurtzeko jarri zuten; eraiki aurretik neurketak egiteko, eta martxan dagoenean aterako dituzten datuekin alderatzeko.

Halere, gaiak herrian piztu duen ezinegona ikusita egin du eskaera udalak. "Aldundiari eskatu genion parametro gehiago neurtzeko aukera, gardentasun ariketa handiagoa egiteko, airearen kalitatea hobeto neurtzeko", azaldu du Zaballosek. "Ez zuen [GHK-k] betebeharririk eskari horri erantzuteko, baina ongi ikusi dute". Hain justu, kontrolak indartzeko ekipamendu berria kontsorzioak ordainduko du.



Jon Antxordoki eta Tomas Arrizabalaga, Estitxu Garmendia eta Joxe Mari Azkonobieta hamaikako kideekin batera. TXINTXARRI

Txapak jartzeko prest, Euskaraldiari ekiteko

Astebete falta da Euskaraldia hasteko, eta dagoeneko prest dituzte 'belarriprest' eta 'ahobizi' txapak. Asteartetik ostegunera Ttakunen eta udalean jaso daitezke; ostiralean eta larunbatean, berriz, Okendo plazan egingo dituzten ekitaldietan

Txintxarri

Azken txanpan sartu da dagoeneko Euskaraldia. Hurrengo astean, hilaren 23an, hasiko da hizkuntza ohiturak astintzeko esperimendu soziala, eta ekitaldiari azken ukituak ematen ari dira. *Belarriprest* eta *ahobizi* txapak prest dituzte dagoeneko, eta hurrengo astean hasiko dira banatzen. Hilaren 20tik 23ra, Ttakun Kultur Elkarteke bulegoan eta udaleko Euskara Zerbitzuan. Ostiral eta

larunbatean, berriz, Okendo plazan ekitaldiak prestatu dituzte, eta hor ere jaso ahalko dira.

Jon Antxordoki Euskara Batzordeko buruak eta Tomas Arrizabalaga Ttakuneko presidentek erakutsi dituzte Euskaraldirako txapak. Ez dira Euskararen Maratoikoak bezalakoak. Azpialde zuri baten gainean daude marraztuta *ahobizi* eta *belarriprest* figuren ikurrak.

Hurrengo asteko asteartean, asteazkenean eta ostegunean hartu ahal izango dira horiek. 09:00etatik 13:30era udaleko Euskara Zerbitzuan. Baita Ttakuneko bulegoan ere; 09:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 19:00etara.

11 eguneko egitaraua fintzen ari dira antolatzaileak, baina lehen bi ekitaldien berri eman dute; ostiralean, hilaren 23an, 16:00etatik 21:00etara izango da, Okendo plazan. Larunbatean, toki

berean, 11:00etatik 14:00etarako egitaraua prestatu dute.

Txapekin batera, Euskaraldiak iraun bitartean norberak bere rola betetzeko aholkuak ere jasoko ditu. Euskal Herriko antolakuntzatik prestatu dituzte horiek, eta orain bi urte herrian egindako ikerketako ondorioetan oinarritu dira, alegia, *Baietz 40 egun euskaraz!* egitasmoan. Aholku horiek jarraituz, *ahobiziek* eta *belarriprestek* laguntza izango dute beren rolak betetzeko.

Etxez etxe

Estitxu Garmendia eta Joxe Mari Azkonobieta hamaikako kideak ere izan dira agerraldian, eta aurreko asteburuan eginiko *Euskaraldia loratzen Lasarte-Orian* ekitaldiari buruzko azalpenak eman ditzute. 160 pertsona inguru aritu ziren etxez etxe Euskaraldia herritarrei azaltzen, eta izen emateko aukera eskaintzen. Boluntario horiek guztiak zoriondu eta eskerrak eman dizkiete.

Horrez gain, balkoietan zintzilikatzeko puntuak banatu zituzten; gero eta gehiago ikusten dira kalean, herritarrek ekitaldiari eginiko harrera beroaren erakusgarri. Dagoeneko *ahobizi* edo *belarriprest* gisa 1.800 pertsonak baino gehiagok izena eman dute. Halere, oraindik badago aukera parte hartzeko: <http://lasarte-oria.euskaraldia.eus> webgunean izena eman daiteke, edo herriko 28 puntuetan bestela, Ttakun Kultur Elkartean tartean.

Bestalde, gero eta ugariagoak dira Euskaraldiari emandako atxikipenak. Abbadia saridunek talde argazkia atera dute aste honetan, ekitaldiarekin bat egiteko. Tartean izan dira Ttakuneko ordezkariak ere.



NEURE KABUZ

MAIDER GALARDI

Lasarte-Soria

Hogeita lau orduz euskaraz bizitzeko aukera duzu; etxean jaso duzu euskara, lagun euskaldunak egin dituzu txikitari, unibertsitatean ere hala ikasi dituzu soziologia eta zientzia politikoak. Euskara hutsezko egunkari bakarrean egiten duzu lan, eta aisialdia ere gehien bat egiten duzu hizkuntza horretan; dela antzerkiak ikustean, kontzertuetan, parrandan... Pentsa zen bat "euskararen sasi militanterekin" topatu zaren bidean. "Beterriko euskara duzu", "Hernaniarra al zara?". Eta zuk ezetz, Lasartekoa zarela, Lasarte-Oriakoa. "Benetan? Ostia! Lasarte-Soriakoa zara, ez dirudi". "Ez al da Lasarte apur bat *txurrianoa*?". Eta zeuk, zeure buruari galdetu diozu ea non galdu duzun euskaldun petoaren karneta. Are okerrago, burutik pasatu zaizu pribilegiatua zarela Lasarte bezalako herri-ustez-erdaldun batean euskaraz bizitzeko aukera izateagatik.

Baina, gogoratu zara zeure kuadrillan guztiak ez dutela etxetik jaso euskara. Guztiak ez direla bizi Zabaletako arnagunean edo Erdialdeko oasian. Badituzula Oriako eta Zumaburuko lagunak, eta horiekin ere ari zarela euskaraz. Batzuk ikastolan ezagutu zenituen, horiekin joan zinen Kukukara edo Amalur trikiti eskolara. Horiekin joan zinen udalekutara eta Kuadrillategira. Beste batzuk ezagutu zenituen Ostadarren, eta horiekin futboleko euskaraz aritzeko zortea izan zenuen. Horiekin egin duzu parranda, lehen gaupasa Euskararen Maratoiean. Gogoratzen zara Sorgin Jaietan lehen aldiz nola eraiki zenuen txosna, euskaraz. Oroitzen zara urte batzuk geroago festetako sexu eraso batengatik alkatearekin euskaraz aritu zinela -bi ordu lo eginda-, eta hark esan zizun euskaraz aritzeko, bera *belarriprest* zela. Ondo gogoan duzu joan den asteko Euskal Jaiean ajea, nola okupatu zenuten gaztetasunez eta euskaraz kalea. Pentsatu duzu *ahobiziz* inguratuta egoteaz gain, ehunka *belarriprestez* inguratuta egoteagatik aritu zaitezkeela euskaraz etxetik irteten zarenetik etxera sartzen zaren arte. Ah! Ia ahaztu zaizu Euskaraldiko txapa hartzea! Harro eramango duzu paparrean, Lasartekoa izateak baduelako berezko balio erantsi bat. Gora Lasarte-Soria ta (izan) punto.

MAITE

ESTETIKA ARETOA

Uistin Kalea z/g Lasarte-Oria
Tel. 943 37 08 45

Gure tratamendu eta zerbitzuak opari-txartel moduan oparitu ditzakezu!

BLACK FRIDAY

URTE OSOAN

GUK EGUNERO DITUGU
ESKAINITZA ONENAK

- Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Mota ezberinetako depilazioak
- Solariuma
- Manikura eta pedikura
- Makillajea
- Betileen tindatzea eta "lifting"-a



Irudian, Oinkari dantza taldeko bi kide, Iker Telleria eta Iñaki Dieguez. Ikuskizun bikaina eskaini zuten. TXINTXARRI

Akordeoia, perkusioa eta dantza izan dira osagaiak

Akordeoi Jaialdia ospatu du Zero Sette orkestrak, hamabosgarrenez. Akordeoia eta perkusioa uztartu dituzte Iñaki Dieguezek eta Iker Telleriak; Oinkari dantza taldearekin batera aritu dira. Oholtza txiki utzi dute gero Sabadellgo Akordeoi Orkestrako kideek

Iñigo Gonzalez Sarobe

Perkusioa eta haize-instrumentuak ongi eramaten ez direla uste dutenek Iñaki Dieguezek eta Iker Telleriak elkarrekin eskaintzen duten emanaldia ikusi beharko lukete. Eta hori uste ez dutenek ere bai. Eta mundu guztiak. Bi artista horiek ireki zuten Zero Sette Akordeoi Orkestraren akordeoi jaialdiaren XV. edizioa. Manuel Lekuona kultur etxeak auditorioan ospatu zuten, ohi bezala. Hainbat lasarteoriatarrek gozatu zuten ikuskizunaz.

Marinba izeneko instrumentua jo zuen Telleriak. Xilofonoaren antzeko itxura du. Kazetariak ez daki askoz gehiago marinbari buruz, baina iruditu zitzaion bikote oso ona egiten duela akordeoiarekin. Eta ikusleei ere bai antza, nekatu arte egin zutelako txalo. Dieguez aritu zen akordeoiarekin. Emanaldia hasi zenean bi artista zeuden oholtzan. Bukatzean, sei: Oinkari dantza taldeko hainbat kidearekin batera aritu ziren erdialdetik aurrera.

Sagartu ikuskizunaren fragmentu bat oholtzaratu zuten. Marinba utzi, eta bateriarekin aritu zen Telleria zati horretan.

Oholtza bete musikari

Arratsaldeko beste gonbidatua Sabadellgo Akordeoi Orkestra izan zen. Dieguezek, Telleriak eta Oinkarik bukatu ostean, bost bat minutu behar izan zituzten teknikariek oholtza prestatzeko. Ez zen harritzekoa izan, kontuan hartuta auditorioa txiki utzi zutela

Kataluniatik etorritako musikariek. 1991n sortu zen orkestra, Miguel Angel Maestro musikariaren zuzendaritzapean. 27 urteotan hainbat emanaldi eskaini ditu, eta sari asko jaso ere bai.

Kultur etxean *De París a Buenos Aires* (Paristik Buenos Airesera) aurkeztu zuten; orkestrak egin duen azken lana izan da. Hainbat abesti ezagun ere oholtzaratu zituzten larunbateko jaialdian, ikusentzuleen gozamenerako.



Sabadellgo Akordeoi Orkestra izan zen jaialdiko beste gonbidatua. TXINTXARRI



Ekimeneko sustatzaile eta laguntzaileak, aurkezpenean. TXINTXARRI

Disko Zopa, elikagaien xahutzea gogoan izateko jardunaldia

Janaria alferrik galtzearen aurka kontzientziatzeko ekintzak egingo dituzte larunbatean Okendo plazan

Txintxarri

Disko Zopak, elikagaiak xahutzearen aurkako jardunaldiak, herritarren kontzientziatzeko du helburu. "Garrantzitsua da herritarrek botatzen duten janariaren kontzientzia izatea, hainbeste jendek jatekoa lortzeko arazoak dituenen," adierazi du Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak.

Larunbatean, helduei zein haurrei zuzendutako ekintzak egingo dira. "Elikagaiak xahutzeari buruz kontzientziatu nahi dugu, eta haurrak giltza izan daitezke". Tailerrak egingo dira eguerditik 14:00ak arte. Ekimenaren aurkezpena, Zunba saioa, sukaldaritza lehiaketa,

doako herri bazkaria, eta taldeen emanaldia ere antolatu dute.

Sukaldaritza lehiaketarako eta herri bazkarirako lehengaiak dendetako soberakinak izango dira. Horregatik, herriko merkatariei deialdia egin diete ekimenean parte hartzeko.

"Iraungitze datak eta elikagaien egoera kontuan izango dira. Ez dugu jan ezin den ezer erabiliko".

Herri bazkaria egiteko sukaldari lasarteoriatarrei dei egin diete antolatzaileek, baita sukaldaritza lehiaketan parte hartzeko gonbita luzatu ere. Bata edo bestean izan, izena emateko bi bide daude: elan.cubs@gmail.com helbide elektronikoa, edo 627 847 535 telefono zenbakian.



TXINTXARRI

Baserriko onena, Okendo plazan

Idiazabal gazta, barazki freskoak eta koloretsuak, ezta, ukenduak eta kremak, erroskilak eta pastelak... Denetik erosi dute herritarrek, Baserriko Produktuen VI. Azokan. Okendo plazan jarri dituzten postuetako salgai guztiak zeukaten ezaugarri berbera: baserriko ekarriak ziren. Bien bitartean, etxeko txikiak antzinako jolasez gozatu dute, plazako arkupeetan. Euskal Jaiarekin bat egin du, eta bi ekitaldi horiek atmosfera berezi eta polita sortu dute herriaren erdigunean.

Hizkuntzarekin jolasean, algara eta barre artean

Bertso Eskolak zortzi talde osatu ditu aurten, 6. mailako eta DBHko gaztetxoekin. Ane Labaka eta Haritz Mujika bertsolariak aritzen dira irakasle lanetan. Gustura elkartzen dira ikasleak, astean behin ordubetez txantxa artean bertsotan jarduteko

Adrian Garcia

Beharrezkoa izaten dute gaztetxoek ikastetxeko lanetatik atsedenditxo bat hartzea noiz behinka. Horretarako ordutxo bat hartzen dute DBHko ikasle batzuk, astelehenetako bazkalostean, hitzekin eta errimekin jolasteko lagun artean. Oriarten elkartzen dira Bertso Eskolako kideak, Ane Labaka eta Haritz Mujika bertsolari gazteen gidaritzapean, bertsoetan jarduteko. Hasieratik nabari da ez dela ohiko eskola bat; txantxa artean ekiten diote kantuari. Horretan laguntzen dute irakasleak. Talde txikiak izanda, patxadaz lan egiteko aukera ematen dute. Guztira, zortzi dituzte aurten; lau seigarren mailan, eta beste horrenbeste DBHn.

Ez da bertsoekin duten lehenengo harremana. 5. eta 6. mailan Unai Muñoa herriko bertsolariarekin egiten dute lehen hurbilketa, eskola orduetan. Ondoren, gehiago sakondu nahi duenak izena ematen du Bertso Eskolan. Aurten lehenengo taldea atera dute 6. mailan, eskolaz kanpo ere aukera izateko bertsotan ikasteko.

Astelehen eguerdian DBHko bi taldeak elkartu dira, zortzi ikasle guztira. Mahaiaren bueltan eseri denak, elkarri begira. Lander, Alazne, Ane eta Nora alde batean. Eneko, Julen, Aitana eta Goiatz bestean.

Hiztegia eta memoria

Zergatik izena ematen duten galdetuta, azkar erantzuten dute ikasleak: "Gustatzen zaigulako". Onartzen dute batzuetan lagunek "arraro" begiratzen dietela Bertso Eskolan aritzeagatik, baina ez zaie axola. "Nahi dugulako etortzen gara". Erabilgarriak zaizkie gero bertsoak eskolatik kanpo ere. "Piropoa botatzeko, edo norbait zoriontzeko", diote



DBHko Bertso Eskolako ikasleak, irakasleekin batera, Oriarten. TXINTXARRI

"JENDAURREAN KANTATZEAN URDURI JARRI ARREN, TXALOAK JASOTZEAK ILUSIOA EGITEN DU"

ikasleak. Baita amari "petarda" deitzeko ere, baten batek onartu duenez.

Edonola ere, txantxak egiteaz gainera, irabazten dituzte gaztetxoek beste hainbat abilezia. Izan ere, memoria eta hiztegia lantzen, eta jendaurrean hitz egiteko ohitura irabazten dute. Horretan badute eskarmentua; sanpedroetako bertso ekitaldian agurra kantatu zieten bertsolariei, Maialen Lujanbiori eta Andoni Egañari, besteak beste. "Adarra jo genion Egañari, baina gero hark ere bueltatu zigun".

Halere, oraindik urduri jartzen dira jendaurrean kantatzean. "Lotsa leihotik behera bota". Hain justu, horixe da Bertso Eskolan barneratzen duten lehen ikasgaia. Pertsona izan daiteke lotsatia, baina bertsotan aritzeko unean behintzat, lotsagabe aritu beharra du.

Nolanahi ere, urduritasun horrek badu gero ordaina. "Oholtza ganean zaudela txaloak jasotzen dituzunean ilusioa egiten du".

Bertsoak osatu ez ezik, kantatu ere egin behar dute. Antzerkia eta musika egiten dute kide batzuk, baina oraingoz behintzat, ongi kantatzeak ez die sobera kezkatzen: "Kantatzen ez dakiten bertsolari oso onak badaude".

Bestalde, bertsolaritza txapelketen bideoak ikusten dituzte, eta baita porrak egin. Badituzte bertsolari faboritoak: "Egaña, Maialen, Gaztelumendi...".

Eskola amaitzeko, bertso bat nola osatu erakutsi diote gaztetxoek TXINTXARRI-ri. Lehenengo, garrantzitsuena: gaia aukeratu. Ondoren, doinua. "Horrek ematen digu neurria". Bukaerako oina jarri, oinak markatu, eta ideia zurrumbilo bat botatzen dute zortzirek. Hitz horiekin osatuko dituzte gero oinak. Konturatzeke, minutu gutxitan dute bertsoa, *Orioko balea*-ren doinuarekin: "Gu bertso eskolako / ikasleak gara / hemen egiten dugu / barre ta algara / ondo pasatzen dugu / ta oso guaya da / apuntatu zaitezte / bertso eskolara".




EREIN

Gorputzetik idatzitako narrazioa

Ezpainetakoa izenburupeko narrazio kronologikoa argitaratu du Ane Labakak. Lehen pertsonan idatzitako lana "biluzte ariketa" izan da, "kontakizun intimoa, gorputzetik idatzia". Iazko Peru Abarka lehiaketako narrazioirik onenaren saria irabazi zuen, eta Malen Amenabar ilustratzailearekin batera kaleratu du.

Zurezko piezen erakusketa

Urtero moduan, Zurmailuk egurrezko lanen erakusketa jarri du Antonio Mercero aretoan. Urte osoan egindako piezak ikusi ahal izango dituzte lasarteoriatarrek. Igande honetan itxiko dute erakusteka, beraz, bisitatzeko hiru egun besterik ez dira geratzen. Astegunetan 18:00etatik 20:00etara dago irekita, eta asteburuan, beriz, 12:00etatik 14:00etara. Martin Grijalbo zendutako elkarteko kidea omendu dute.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Pop britainiarra, lau haizetara

Aterpea merkatarien elkarrekin *Kultura leku guztietan* egitasmoa antolatuta du. Musika emanaldiak izango dira azaroan eta abenduan, herriko kale eta bazterrek girotzeko. Joan den ostiral arratsaldean Joyboy artistaren txanda izan zen. Azaroaren 23an, ostirala, Victor Vega Jazz Trio ariko da Jaizkibel plazan. Beste zenbait emanaldi etorriko dira gero.

Goizetik gauera arte, festa giroan

Euskal Jaia Lasarte-Orian

Okendora bueltatu da aurten Euskal Jaia (iaz Loidibarren frontoian ospatu zuten, eguraldiagatik). Aurreikuspenak zioen euria egingo zuela goizean, eta gero atertu. Dena den, antolatzaileek erabaki zuten egitaraua plazan mantentzea, eta bikain atera zitzaizen jokaldia. Arratsaldeko taberna pote girotuan soilik erori ziren ur tantak.

Txistulariek eta danbolin joleek esnatu zuten herria. Euren doinuez gain, Euskaraldia ere sartu zen herritarren etxeetara; hainbat bisitari ibili ziren goizean, *ahobizi* eta *belarriprest* bila. Bazkalordura arte iraun zuen musikak, kantujira txikiarekin. Errioxar erara egindako patatak jan eta gero, arratsaldeko ekintzak hasi ziren: Bea Egizabalen bazkaloste umoretsua, harrijasotzaileak, erromeria eta taberna pote girotua. Sorgin Jaiek Euskal Jaia sorgindu zuten, gazte olinpiadak eta herri afaria antolatuz. Goiz-goizetik gaueko ordu txikietara arte iraun zuen festak.



Txistulariek esnatu zuten herria: musikaren bitartez herritarrei eskatu zieten Euskal Jairako prestatzeko. TXINTXARRI



Beñat Telleria harrijasotzailea, lanean. Axier Arteaga pilotari profesionala izan zuen laguntzaile. J. Telleriarekin batera aritzera, baina ezin izan zuten azkenean. Inork ez du jaso 'Okerra' harria aurt...



Exeko txikiak dotore atera ziren kalera, baserritar jantziak soinean. TXINTXARRI



Xumela abesbatzak eta hainbat gaztetxok kantujira txikia egin zuten goizean, herriko kaleak alaituz. TXINTXARRI



Joseba Ostolaza eta alaba etortzekoak ziren en, TXINTXARRI



Goian, Euskalaldiko zenbait bisitari. Azpian, Iker Sarasola, zerbitzatzen. TXINTXARRI



Bea Egizabalek eman zion ukitu umoretsua bazkalosteari. TXINTXARRI



Goian, arratsaldeko kalejira. Azpian, Sorgin Jaiek antolatutako afaria. TXINTXARRI



Herritar talde bat gustura dantzan, larunbat arratsaldeko erromerian. Ttiriki Ttarrakak eskaini zuen emanaldia. TXINTXARRI

Lasarte-Oriatik mundura



Bizitzan behin izan ohi da aukera horrelako bidaia bat egiteko. Erasmus eta antzeko programei esker, goi mailako ikasketak egiten ari diren pertsonak atzerrian ikasteko beka bat jasotzen dute. Lasarte-Oriako ikasle batzuk aprobetxatu dute aukera horretarako. Arrazoiak sobera daude: atzerriko hizkuntza ikasi, beste kultura batean murgildu, etxetik kanpo moldatzen ikasi, toki berriak ezagutu... Edozein tokitara joanda ere, denek ezaugarri berbera aipatzen dute: aberasgarria. Kanpoan ikasten ari diren hiru ikaslerekin jarri da harremanetan TXINTXARRI, haien esperientziaren berri jakiteko. Halere, herriko ikasle gehiago ere badaude une hauetan atzerrian. Italia, Polonia edo Alemania izan herrialdea, denentzat ari da izaten "esperientzia bakarra".

"Etxeko gauzak gehiago baloratzen ditut orain"

ENERITZ ODRIOZOLA

Ikasturte osoa Frantzian igaroko du ikasleak, Mediterraneoko Niza hirian. Beste kulturetatik xurgatzeko aukera "aberasgarria" baliatu nahi du Erasmus programan

Hizkuntzak maite ditu Eneritz Odriozolak. Frantsesa ongi menperatzen du, eta horregatik animatu da Erasmus programa Frantzian egitera. Gasteizen ikasten du Itzupelgintza eta Interpretatzioa, bigarren urtez. Baina Nizan emango du ikasturte osoa, uztaiera arte. "Esperientzia ikaragarria da, oso ondo joan dira oraingoz lehen hilabeteak. Ikasle guztiei gomendatuko nieke. Etxeko gauzak hobeto baloratzen ditut orain".

Hiria aukeratzeko orduan oso kontutan hartu ditu fakultate bakoitzak eskaintzen dituen irakasgaiak. "Nizako fakultateak izen ona du itzulpengintzan". Halere, ikasleak onartu du Mediterraneoko klimak ere lagundu duela aukera horretan.

"Hondartza eta kosta urdin-uridin hori oso ederra da".

Odriozolak 8 urte arte ikasi du Hendaian, Landaberrira bueltatu arte. Familia batekin egonaldiak ere eginak ditu Britainian. Halere, Frantziako kulturaz "hainbeste" ez zekien Erasmusera joan aurretik. "Ikasi nahi nuen Frantziari buruz zerbait gehiago".

Nizara iritsi berritan "zaila" egin zitzaion. "Ez nuen inor ezagutzen, eta taldetxo bat egin arte beste ikasleekin kosta egiten du. Aurretik uste nuen gauza asko eginak zeudela, ikasgaien matrikulazioa eta beste burokrazia kontuak. Baina dena egiteko dago, bakarrik zaude eta inork ez dizu laguntzen".

Baina Frantziako kulturatik edan bakarrik ez, besteetatik ere xurgatzen ari da Odriozola. Izan ere, kultura askotako jendearekin elkartu da. "Latinoameriako asko, Frantziakoak, Espainiakoak... Talde handi bat gara". Halere, herrialdeko hainbat ohiturara moldatzea kosta egiten zaio.

Hilabete asko falta zaizkio oraindik Nizan, baina dagoeneko aberasgarria izan zaio esperientzia. "Zure erasotasunetik ihes egiten duzu, eta zuk egin behar diozu aurre datozkizun gauza guztiei". Bestalde, toki askotako jendea ezagutzeak gauzak ikusteko modua alda ditzake. "Zeure burua irekitzen da, estereotipo eta uste asko apurtzen dira".



Eneritz Odriozola, Frantziako egonaldiko argazki batean. ENERITZ ODRIOZOLA

"Lasaiago hartzen dute dena, ez dute guk bizi dugun estresa"

JULENE ILLARRAMENDI

Hilabete batzuk daramatza Txileko Andres Bello (Viña del Mar) unibertsitatean ikasketak egiten. Valparaiso da bere egoitza nagusia, baina oporraldiak aprobetxatzen ari da herrialdea ezagutzeko

Ikasketak aitzakiatzat hartuta, itsasoz bestaldera joan da Julene Illarramendi, sei hilabeterako. Latinoamerikara joango zela argi zuen, baina zein herrialde aukeratu zalantzak izan ditu. Argentina eta Txileren artean egin du aukeraketa, baina ez da hain zaila izan; bera joan aurretik lagun bat izan zuen Txilen ikasten, eta bere esperientzia "ona" jasota egin du hautua. Valparaiso hirian biziko da urtarrila amaierara arte.

Ez zuen herrialdearen inguruko ezagutza handirik: "Oso erlijiosoa, pobrea eta matxista izan zitekeela uste nuen, baina hona iritsitakoan irauli egin dira ideia horiek". Ikasle giro handia du Valparaisok: "Oso hiri alternatiboa da, irekia". Hogeit lagun bizi dira elkarrekin Casa Mariposan, baina horietatik gehienak euskaldunak dira, nahiz

eta Alemaniako eta Frantziako ikasle batzuk ere bizi diren bertan. Txiletarrak ere ezagutu ditu Illarramendik, baina izakera ez zaizkio Latinoamerikako beste herrialdeetakoak bezain irekiak iruditu. Erritmo "lasaiagoan" bizi direla antzeman du lasarteoriatarak: "Lasaiago hartzen dute egunerokoa, ez dute guk bizi dugun estresa, dena azkar egin beharra".

Txilek badauzka berezko zenbait hizkuntza (Mapudunguna, Aimara, Kitxua, Rapanuia), baina zonalde gutxitan mantentzen dira bizirik. Urte luzez Espainiako kolonia izan zen herrialdea, eta horren ondorioz galdu dira horiek. Gaztelan hitz egiten du herritarren gehiengoak, baina Euskal Herrian hitz egiten denarekin alderatuta, "oso

ezberdina" da: "Hasieran ez nuen ondo ulertzen, baina pixkanaka ikasten ari naiz". Bertako hitz batzuk erakutsi dizkio TXINTXARRI: *Carrete* (parranda esan nahi du), *Caña* (ajea), *Vacan* (oso ondo). Edozer indarrez baieztatu edo ukatzeko *-po* gehitzen diote amaieran: *Sipo* (bai noski).

Lurrikarak eta dardarak

Natura fenomenoak dira herrialdearen berezitasun bat. 2010. urtean jasan zuen Txilek azkeneko lurrikara handia, eta ordutik dardarak izan badira ere, Illarramendiri ez zaio tokatu horiek sentitzea.

Valparaiso ondoan dagoen Viña del Mar hirian ikasten ari da, eta "ezberdintasun handiak" aurkitu ditu. Euskal Herriko ikasgelatan 100 ikasle biltzen diren bitartean, hamahiru ikasle

Valparaiso Txile



Julene Illarramendi, irudiaren erdialdean, ikurrinari eusten. JULENE ILLARRAMENDI

dira Txilen. Irakasleen eta ikasleen arteko harremana "oso gertukoa" da, eta hori "arrotza" egin zaio.

Atzerrian ikasteko programak parrandak eta bidaiak egiteko aitzakiak diren edo ez galdetuta, Valparaisoan parranda "asko" dagoela azaldu du: "Nahi izanez

gero, egunero egin daiteke parranda". Hiriko tabernarik zaharrenean biltzen dira ostegunetan: "Txileko dantza eta musika tipikoaz gozaten dugu". Kultura, ohitura eta jende berri ugari ezagutzeko esperientzia aberasgarria izaten ari da".

"Nire bizitzako esperientzia aberasgarriena izaten ari da"

ANDREA GONZALEZ

Europa iparraldean ezagutzera joan da Andrea Gonzalez. Zehatzago esanda, Lituaniara, Baltikoko herrialdeetako batera. Vilniuseko unibertsitatean ari da ikasten

Arratsaldeko bostetarako ilun dago zerua Lituanian. Hotza egiten du: bospasei gradu. Eta irakasleek esaten diote oraindik ez duela ezagutu "benetako hotza" zer den. Sarreratxo hau irakurrita, Baltikoko herrialde horrek ez du ematen oso erakargarria, baina Andrea Gonzalezek ez du hori uste: "Bi hilabete soilik daramatza hemen, baina nire bizitzako esperientzia aberasgarriena izaten ari da".

Abuztu bukaeran iritsi zen Vilnius hiriburura, eta urtarrila amaierara arte egongo da han. Vytautas Magnas University

zentroan ari da ikasten. Lehen Hezkuntzako Gradua hasi zuen 2016ko irailean. Donostian ikasten du, Hezkuntza fakultatean. Beste herrialdeetako ikasleekin harreman oso ona egiten ari da: "Irrikitan daude gure kultura ezagutzeko eta haiena guri erakusteko".

Klaseak ingelesez jasotzen dituzte Gonzalezek eta Erasmus esperientzia horretan egin dituen lagunek; Vilniuseko kaleetan ere hizkuntza horrekin komunikatzen dira. "Oso zaila" egiten zaio lituaniera, baina hitz solte batzuk ikasi ditu. Telefonoan zerrendatxo



Andrea Gonzalez (ezkerrean, grisez), Vilniuseko Trakai gazteluan. ANDREA GONZALEZ

bat egin du eguneroko jardunean gehien erabiltzen diren hitzekin eta esaldiekin. Horietako hiru dira *sveiki* edo *laba diena* (kaixo esateko bi modu) eta *aciu* (eskerrik asko).

1991. urtean independizatu zen Lituania. Errusiarrek makina bat aldiz inbaditu izan dute, eta Alemania ere sartu zen Bigarren Mundu Gerran. "Altzor preziatua" da askatasuna lituaniarrentzat,

eta "oso harro" daude herrialde independentea izateaz. "Oso abertzaleak dira; oso ohikoa da Lituaniako bandera edozein tokitan ikustea", dio Gonzalezek.

Vilniuseko toki turistikoena (Trakai gaztelua, esate baterako) ezagutu ditu, eta baita Lituaniako beste hiri batzuk (Klaipeda). Letonian eta Polonian egon da, eta Laponiara doa datorren astean.

Parranda egiteko aukera asko dago Vilniusen: "Astean lautan atera zaitezke, parranda giroa sekulakoa da". Erasmus egiten ari diren ikasleei zuzenduta dauden taberna eta diskoteketara joaten da normalean.

"OSO ABERTZALEAK DIRA LITUANIARRAK: OSO OHIKOA DA BANDERA EDOZEIN TOKITAN IKUSTEA"

Vilnius Lituania

Pilotan jokatu daiteke behingoz Zabaletan

Urtetako aldarrikapenaren ostean, Zabaletak igandean pilotalekua inauguratuko du. Pilota jaialdiaz gain, 'belle époque' desfilea, babarrun jate herrikoa, bazkaloste girotua eta erromeria ere izango dira. Pilotalekuko lanek 775.000 euroko kostua izan dute

Txintxarri

Urteak dira Zabaleta auzoko herritarrek pilotalekua eskatzen zutela. Azkenean, lortu dute helburua; Goiegiko Ibarra eta Zabaleta Berriko urbanizatze proiektuaren barruan aurreikusi zuten instalazioa, eta azaro hasieran amaitu ziren lanak. Igandean, pilotalekuaren irekiera ospatzeko egun osoko jaia antolatu dute Zabaleta Auzolan elkarte lagunek.

Belle époque garaian girotutako pilota jaialdi berezia izango da. 10:00etan, Antoni Blas plazatik hasiko da desfilea, garai hartako jantziekin. Inaugurazio ekitaldiaren aurrekari izango da.

Zinta moztu ostean, pilota jaialdia egingo dute. Intza pilota eskolako infantilek binakako partida jokatu dute; Ane Arteagak eta Miriam Arrillaga zubietarrak Azpeitiako bikote bat izango dute aurrez aurre;



Zabaleta auzoko pilotalekua igandean inauguratuko dute auzotarrek. TXINTXARRI

Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolak osatutako bikotea, berriz, Julen Alberdi eta Iñigo Bikuñaren aurka lehiatuko da. B i k u ñ a k A s p e r e k i n aurrekontratua sinatu du, eta aurki profesioaletan egingo du debuta.

Kirolaren ostean, babarrun jatea izango da, triapak betetzeko. Bazkalostean ere ez dira ekintzak faltako: bertsoak, abestiak, photocall-a eta jaiari amaiera ederra emateko, Larrian gozo taldearen eskutik, erromeria izango da.

Zabaleta Auzolaneko kideek lasarteoriatarrei gonbita egin diete, jaiari parte hartu dezaten. Giroarekin bat egite aldera, *belle époque* garaiko arropekin edo baserriarrez hurbildu daiteke.

Zabaleta Auzolanek 2.100 euroko laguntza jaso du jaialdirako. Horren barne, pilota partidak komun kimikoak eta erromeriako megafonia daude.

Pilotalekua eta erabilera

Zabaletako pilotalekukoak 36x15 metro ditu; altueran, berriz, 14,16. Kantxak 10 metro zabalera du, eta kontrakantxak bost. Frontisak 10x11 metroko neurria du. Harmaila estalia du, eta 150 ikusle sar daitezke. "Lasarte-Oriako pilotaleku ireki handiena da," azaldu du Jesus Zaballos alkateak.

Horrez gain, LED argiak eta jaietarako elektrizitate gunea du. "Ganean erabili ahal izateko, pultsadore egongo da, eta bi orduz mantenduko da argia," adierazi du Txus Alonso Kirol zinegotziak.

Erabilera ordutegi bat ere dago. "Beste pilotalekuetan bezala, arautegi bat egongo da, eta horretan, auzotarren lo orduak errespetatzeko ordutegi bat ezartzen da".

Lanak Zabaleta Berriko ituntze-batzarrak egin ditu, eta 525.000 euroko aurrekontua izan du. Eustalpea Lasarte-Oriako Udalaren esku zegoen, baina hitzarmen baten bitartez Zabaleta Berriko

Inaugurazioko egitaraua

- **10:00etan**, *belle époque* desfilea, plazatik pilotalekura.
- **10:30ean**, inaugurazioa/parodia.
- **10:45ean**, infantilen pilota partida.
- **11:45ean**, senior emakumezkoen pilota partida.
- **12:45ean**, senior gizonezkoen pilota partida.
- **14:15ean**, babarrun jate herrikoa. Ondoren bertsoak, kantak eta photocall-a.
- **17:30ean**, erromeria, Larrian gozo taldearen eskutik.

ituntze-batzarrak egin du. 250.000 euroko kostua izan du.

"Instalazioaz harro"

Udal agintariak bisitaldia egin dute frontoira, datuak emateko. "Oso harro" agertu da Zaballos alkatea. "Pixkanaka auzoko urbanizatzea amaitzen ari da. Guretzako lehentasuna da auzoek instalazioak izatea. Gainera, Zabaletak eremu estali bat izango du pilotalekuari esker".

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA
ERREGIONAL OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Leintz Arizmendi Larunbata. 17:30. Michelinen.
ERREGIONALEN GORENGOA
Vasconia CD - Ostadar SKT Larunbata. 17:30. Puio, Donostian.
ERREGIONALEN 1. MAILA
Asoleus CF - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Herrera, Donostian.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Anaitasuna Larunbata. 15:45. Michelinen.
JUBENILEN 1. MAILA
Lazkao KE B - Ostadar SKT Larunbata. 18:15. Arizti Handi, Lazkaon.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Beti Ona - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Beraun, Erreterian.
KADETEEN 1. MAILA
Ostadar SKT A - Billabona KE A Larunbata. 14:15. Michelinen.
Idiazabal KE B - Ostadar SKT B Larunbata. 12:30. Arizkorreta, Idiazabal.

INFANTILEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Ordizia KE Larunbata. 12:45. Michelinen.
INFANTIL TXIKIAK, SAILKATZE FASEA
Ostadar SKT - Touring KE Igandea. 13:45. Michelinen.
INFANTILEN 1. MAILA
Ostadar SKT A - Udarregi Usurbil A Igandea. 09:45. Michelinen.
Texas Lasartearra CF - Urnieta KE Larunbata. 09:45. Michelinen.
Udarregi Usurbil B - Ostadar SKT B Larunbata. 09:45. Michelinen.
INFANTILEN F-8
Ostadar SKT - Aizkorri Goierrri FT Larunbata. 11:15. Michelinen.
ARETO-FUTBOLA
NAZIONALA 3. MAILA
Antiguoko KE - San Jorge Santurtzi Igandea. 12:00. Pio Baroja Kir., Donostian.
GIPUZKOAKO SENIORRA
Aldaz Klinika - Bilkoin Legorreta Ostirala. 20:50. Kiroldegian.
Teep Samaniego Orixe - Garoa Taberna Larunbata. 10:00. Uzturpe, Tolosan.

GIPUZKOAKO 2. MAILA
Laskorain KE - Futsal Isu Leihoak Ostirala. 20:30. Usabal kir., Tolosan.
GIPUZKOAKO JUBENILEN MAILA
Teep Samaniego Orixe - Bar Lasarte Larunbata. 11:30. Uzturpe, Tolosan.
GIPUZKOAKO KADETEEN MAILA
Balardi Harategia - Eskoriatza KE Larunbata. 11:20. Kiroldegian.
SASKIBALOA
SENIOR EMAKUMEZKOAK
Txintxu Gozotegia ISB - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Azkoitian.
SENIOR HIRUGARREN MAILA
Getariako KETA Babyauto Sharks - Ostadar SKT Larunbata. 17:30. Getarian.
JUNIOR ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT A - Gurpo EME Oiarso SKT Igandea. 09:30. Kiroldegian.
JUNIOR PARTEHARTZEA
Ordizia KE - Ostadar SKT B Larunbata. 10:45. Majori kir., Ordizian.

KADETE ERRENDIMENDUA
Bera Bera Manteo - Ostadar SKT A Igandea. 10:00. Benta Berri kir., Donostian.
KADETE PARTEHARTZEA
Bera Bera Balda - Ostadar SKT B Igandea. 12:00. Paco Yoldi kir., Donostian.
PILOTA
PROFESIONALAK, BIKOTEKA
Victor eta Untoria - Arteaga II eta Mariezkurrena II Larunbata. 17:45. Lantziego, Araban.
Laso eta Ibai Zabala - Arteaga II eta Eskiroz Osteguna 22. 18:00. Lesaka, Nafarroan.
INAUGURAZIOA
Infantilen eta seniorren partidak jokatu dira. Igandea. 10:45. Zabaletako pilotalekuan.
LASTERKETA
Ezkio Mendi LASTERKETA MISTOA Lasarte-Oriako korrikalari batzuk Ezkio Mendi lasterketa mistoan parte hartuko dute. Larunbata. 10:30. Ezkion.

LEMOATX TRAIL
Lemoatx Trail proban lehiatuko dute hainbat herritarrek. Igandea. 10:00. Lemoa, Bizkaian.
ERRUGBIA
EUSKAL LIGA, 18 URTE AZPIKOAK
Elorrio/Gernika RT - Babyauto Zarautz Beltzak Larunbata. 12:00. Urbieta, Gernikan.
EUSKAL LIGA, 16 URTE AZPIKOAK
Elorrio/Gernika RT - Babyauto Zarautz Beltzak Larunbata. 10:30. Urbieta, Gernikan.
14 URTE AZPIKOAK
Babyauto Zarautz Beltzak taldeko gaztetxoek federazioko jardunaldia dute. Larunbata. 10:30. Asti, Zarautzen.
IGERIKETA
ALEBIN LIGA ETA KZL LIGA
Buruntzaldea IKT-ko txikiak lehiatuko dute. Alebinek ligako 2. jardunaldia eta benjaminen aldiz, 1. jardunaldia jokatu dute. Larunbata. Usabal kir., Tolosan.

ERAIKUNTZA BERRIA SALMENTAN! ZABALETA BERRIN

Hitzartutako etxebizitzak. Baldintzarik gabe.

Donostiatik
6' tara soilik

DONOSTIALDEKO
PREZIORIK
ONENA



ETXEBIZITZA



GARAJEA



TRASTELEKUA



SUKALDEA



ARMAIRUAK



PERTSONALI-
ZATUA

3 LOGELA + GARAJEA
+ TRASTELEKUA

218.500€ tik
+BEZa

250 familia baino gehiagok gozatzen dute
Lasarteko **INGURU NATURAL** paregabe honetan.

INFORMA ZAITEZ

943 36 89 42
www.zabaletaberri.es

Arrazoi tekniko, juridiko edo komertzialengatik informazio hau aldatua izan daiteke.





Behobiarantz ateratako korrikalari talde bat, joan den igandean. ISAAC FARRE RICO

Behobia-Donostia: korrikalari adina istorio

Guztira 145 herritarrek amaitu dute herri lasterketarik jendetsuena. Gomez Margallo eta Salazar izan dira azkarrenak. Emozioz beteriko proba hunkigarria izan ohi da; korrikalari bakoitzak bere istoriotxo du. Horietako bi ekarri ditu hona TXINTXARRI-K

Adrian Garcia

Ez da edozein lasterketa. Korri egiten duten guztiek halaxe diote: gutxienez behin egin beharreko proba da Behobia-Donostia. Agian badaude ibilbide politagoak dituztenak, baina urtero-urtero bide bazterretan pilatzen den ikusle mordoak egiten du berezia. Animoak handik eta hemendik jasotzen dituzte korrikalariak. Lehen postuetan amaitzen duten atletak bai, baina baita bi orduren bueltan ibiltzen direnek ere.

Lasarteoriatar askorentzat hitzordu garrantzitsua da. Aurten 145 pertsona helmugaratu dira. Horietako 33, emakumeak.

Denera, 30.000 korrikalarik baino gehiagok parte hartu dute. Punta puntako atletak dira horietako asko; gehienak, ordea, zaleak. Horregatik, norberak bere helburua du buruan. Batzuk marka pertsonala ontzea; beste batzuk, besterik gabe lasterketaz gozatzea.

Lehen herritarrak ordubeteren bueltan sartu dira. Raul Gomez Margallo izan da lehena

mutiletan, 1:10:27ko denboran. Maite Salazarrek ordu terditik jaitsi du (1:29:30).

Erretiroa hartzean, korrika

Ander Iriondok ere badu lehiakortasun puntu bat. Iaz bigarren geratu zen bere kategorian, baina aurten arantzatxoa kendu du: "Iaz baino minutu bat gehiago egin dut, baina lehen postua irabazi dut nire kategorian".

Ez dauka meritu gutxi Iriondok egindakoak. 70 urtetik gorakoekin

lehiatzen du; 72 beteko ditu hilaren bukaeran, baina gazte askok baino denbora gutxiago behar izan du helmugaratzeko: ordubete eta 37 minutu.

Erretiroa hartzean, korrika

Haatik, lasterka egitea ez du betiko zaletasuna. "19 urterekin hasi nintzen, baina gero 45 urte egon nintzen ibili gabe. Erretiroa hartu nuenean, 65 urterekin, hasi nintzen berriro".

Pistan lehiatzen du, eta Euskadiko txapeladuna da 3.000 eta 800 metrotan. Espainiakoan ere lortu ditu dominak; 800 eta 400 metrotan hirugarren izan da. Gainera, errepideko 10.000 metroetan bigarren egin du.

Baina lasterketa luzeak ere baditu gogoko. "70. urtebetetzea ospatzeko, Sevillako maratoia egin nuen. 3 ordu eta 36 minutu behar izan nituen".

Behobia-Donostia hirugarren aldiz egin du. Gustuko du, batez ere ikusleengatik. "Bertan dagoen giroak ahaztezina egiten du".

Aurten jende gehiago topatu du bide bazterretan. "Irunen nahiko hotza izaten zen, baina jende asko zegoen igandean".

Bero kolpea egingo zuela iragarria zuten, baina azkenean "ez da horrenbesteko izan", Iriondoren arabera. Ez behintzat, orain dela hiru urte bezainbeste. "Orduan gehiegi izan zen. Aurten, adibidez, urik ez dut edan bukatu arte".

Arantxa Zapata herritarrari ere asko gustatzen zaio Fortunak antolatutako proba. Laugarren aldia du aurtengoa. "Oso lasterketa polita da". Ongi etorri zaio, gainera, bere urteko erronka prestatzeko: "Valentziako maratoia egingo dut. Lasai atera nintzen, gozatzeraz".

Lasterketa gogorra

Lagun batekin batera atera zen, eta elkarrekin bukatu zuten. "Lehenengo aldiz egiten zuen, eta harritatuta geratu da zegoen giroaz". Izan ere, "lasterketa berezia" da Behobia-Donostia, Zapataren hitzetan. "Aurten beste urteetan baino giro hobea zegoen, gainera. Nire alabak Kurasaalean itxarroteak eta ni amaitzen ikusteak ilusioa handia egiten dit".

Halere, ohartarazi du "gogorra" dela; hoge kilometro dira, eta aldapa gogor batzuk ditu, Gaintxurizketako gaina eta Kaputxinos, esaterako. "Aurten asko sufritu dut, belauna minduta baineukan".

"ILUSIOA EGITEN DIT NIRE ALABAK KURSAALEAN LASTERKETA AMAITZEN IKUSTEAK"

Domina sorta Hernanitik

Asteburu bizia izan dute Lasarte-Oriako judoek. Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten joan den asteburuan Hernanin, eta hainbat domina eskuratu zituzten. Josu Olmosek urrea irabazi zuen; Asier Sagastik eta Almi Camposek zilarra; eta Fermin Baldak brontzea. Bestalde, infantil eta kadeteek Amurrioko Nazioarteko Torneoa jokatu zuten.



GORKA ARISTEGI

Lehen proban, podiumean

Denboraldia bukatu bezala hasi dute Buruntzapi txirridularitza eskolako kadete eta juniorrek: podiumean igota. Jaimer Romero eta Asier Pozo junior gazteenak dira, baina lehen eta hirugarren postuan geratu ziren sailkapen orokorrean, Bio Racer pista txapelketako lehen jardunaldian. Beñat Carbayeda kadetea bigarren postuan sailkatu da.



BURUNTZAPI

ZORION AGURRAK



Ander
Zorionak Ander, zure familia guztiaren partetik.



Elene
Zorionak etxeko txikiari, 16 urte handi horiengatik.

JAIOTAKOAK

Zoe Mediavilla Blazquez. Azaroaren 8an.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

HILDAKOAK

Antonino Martinez González. Azaroaren 15an.
Maixa Bengoa Garmendia. Azaroaren 14an.
Fernando Gomez Velasco. Azaroaren 14an.
Juan Inza Urdanpilleta. Azaroaren 13an.
Florencia Jimenez Delgado. Azaroaren 11an.
Martin Iztueta Kortajarena. Azaroaren 10an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 16 DE MIGUEL

Larunbata, 17 ORUE

Igandea, 18 ORUE

Astelehena, 19 LASA

Astearte, 20 GIL

Asteazkena, 21 ACHA-ORBEA

Osteguna, 22 URBISTONDO

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

GUTUNAK

Martin jaunaren eta Xirimiri elkartearen gutun irekiari erantzunez

JON ANTZORDOKI REKONDO

Lehenik eta behin, azaroaren 9ko *Diario Vasco* egunkarian eta *Txintxarri* aldizkarian niri zuzendutako gutun irekiak eragin didan sorpresa agertu nahi nuke. Martin jaunak sinatutako eskutitzak harridurazko sentipen sakon bat eragin zuen; izan ere, Xirimiri elkarteak zuzendaritzak lehen kontaktua zuen, bai nirekin, bai buru nauen departamentuarekin.

Bistakoa da elkarte horrek azken 29 urte honetan Lasarte-Oriako bizitza kulturean egin duen lana, eta lerro hauek aprobetxatu nahi nituzke lan hori eskertzeko, Xirimiri elkarteari

bezala gure herriko gainerako elkarteei ere.

Argitu nahi nuke inoiz ez dela nire asmoa izan, ezta Euskarako departamentuarena ere, zure elkarte Euskal Jaitik baztertzea. Festa horren xedea gure kultura eta hizkuntza bultzatzea eta sendotzea da, afinitate politikoen gaitetik. Euskara guztiok aterpetzen gaituen aterki bat da, gure ideologiak alde batera utzita.

Ttakunen eskutik Euskal Jaia antolatzen hasi ginenean, udaletik argi utzi genuen konnotazio politikorik gabeko jaia izan behar zuela, lasarteoriatar guztioi festa handi horretaz gozatzeko aukera emango ziguna, betiere zure idatzian aipatzen duzun bizikidetzari lehentasuna emanez.

Lasarte-Oria osoan barrena gozatu

da Euskal Jaiaz, plazan egin den herri-bazkaria barne. Eszenatoki guztiak erabat publikoak izan dira, guztionak, eta, horrexegatik, euskarako zerbitzutik ez genuen logikoa ikusi Euskal Jaiko afari herrikoia ñabardura politikoa duen leku batean izatea, ñabardura hori edozein izanda ere.

Gorago adierazi dudan bezala, kolore politikorik gabeko Euskal Jaia nahi genuen, zoritxarrez kolore horiek baitira bereizten gaituztenak. Bat egingo gaituen Euskal Jaia, egun batez bakarrik bada ere. Bizikidetzan eta euskaraz.

Eta, jakina, azkenik lerro hauek aprobetxatzen ditut Lasarte-Oria euskararen alde eskuzabalki lan egiten duten guztiei eskerrak emateko. Gora Euskal Jaia!

OHARRAK

Biyak Bat elkarteak loteria

Biyak Bat elkarteak zenbait ohar jakinarazi nahi ditu. Batetik, bazkideek Gabonetako loteria erosteko aukera izango dute azaroaren 5etik aurrera. Horretarako bazkide txartela erakustea ezinbestekoa izango da.

1963ko kinto afaria

Azaroaren 17an, larunbatean, 1963an jaiotakoek urteroko afaria egingo dute Palomo Linares elkarteak, 21:00etan. 20:00etan, Gure Etxean hitzordua izango dute pottoka pare bat hartu ahal izateko. Afaria 35 euroa aterako da, Laboral kutxako kontu honetan sartzeko: ES72 30350036110361139230.

Bideo TIEN 21

Lagunak

Etxekotresna elektrikoetan adituak

ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA

Ez galdu gure eskaintzak!

BLACK FRIDAY

azaroaren 19tik 23ra

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

▶ Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
▶ Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUAN EMAN

Loidibarren parkinean, BMn, 17 metro karratuko garajea alokatzen du. Telefonoa: 648 200 811.

Garaje marra alokatzen dut Atsobakarren. Sarrera erraza du eta handia. Telefonoa: 943 36 54 76.

Etxebizitza alokatzen dut Zapategi kalean. 86 metro koadro dauzka, hiru logela eta bi komun. Telefonoa: 636 58 54 78.

LANA

ESKARIA

Prest nago edozein gauzatan lan egiteko, hala nola, adineko pertsonak zaintzeko, edo baserriko lanak egiteko. Telefonoa: 643 23 75 10

Pertsona eskaintzen da etxean edo ospitalean

persona adinduen zaintza egiteko, baita gauetan ere. Etxeko lanak ere egingo lituzke. 632 198 705.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, asteburuetan eta jaiegunetan zein ospitalean gaueko zaintzak egiteko prest. 606661048 / 943-404015

SALEROSKETA

SALDU

Kotxe berria saltzen da, Mikrokra marka, kametik gabea. Prezio interesgarria. 608 417 794 edo 670 236 356 telefonoetara deitu.

HEZKUNTZA

DBH 1.go mailako ikasle bati klase partikularrak emateko irakasle baten bila nabil. Telefonoa: 605 770 436

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € + BEZ publizitatea@ttakun.eus 646.824466

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € + BEZ publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Mailu Arruti, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura eta Aizpea Amas.

Banatzaleak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Iñigo Ibarburu, Mikel Valdes,
Naiara Goikoetxea.

Informatikoa

Beñat Gonzalez

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 16

LASARTE-ORIA Erakusketa

Zurmailu zurlanketa elkarteko kideen erakusketa.

Mercero aretoa, ostirala, 18:00etatik 20:00etara; larunbata eta igandean, 12:00etatik 14:00etara.

USURBIL Antzerkia

Euskaldirako 4 aitzaki: Nahia, Xabat, Eli eta Patxi antzezlana eskainiko dute. Sarrera, 6 euro. NOAUA!ko Kulturaldiko ekintza.

Sutegi kutur etxea, 19:30ean.

ANDOAIN Dantza

FRITSCH COMPANY dantza taldeko kideek Mesa para Tr3s lana aurkeztuko dute. Urritasunen bat duten pertsonen arte eszenikoen bidez lan munduan integratzeko aukera ematen die konpainiak. Sarrera, 10 euro.

Bastero kulturgunea, 21:30ean.

URNIETA Kontzertua

Nerabe eta Deus Ez taldeen kontzertua izango da, Katapultatour Gipuzkoa-ren bitartez. Doakoa. Sarobe gunea, 22:00etan.

LARUNBATA 17

LASARTE-ORIA Sari banaketa

Lasarte-Oriako XXXII. literatur lehiaketako eta Haur eta gazteen XXI. literatur lehiaketako irabazleak jakitera emango dira.

Manuel Lekuonako hitzaldi aretoa, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Disko Zopa

Elikagaiak xahutzearen aurkako I. jardunaldiak egingo dituzte: 12:00etan, haurrentzako tailerrak.

12:30ean, Zunba eta sukaldaritzaren lehiaketaren hasiera.

14:30ean, Herri bazkaria.

17:00etan, agurra eta eskertza ekitaldia. Ekintzak girotzeko DJa eta emanaldiak.

Okendo plaza, 12:00etatik 17:00etara.

LASARTE-ORIA Aitortza

Islada Ezkutatuak elkarteak Memoria historikoa biltzen lagundu duten herritarrei aitortza egingo die. Joseba Tapia musikariak bi abesti eskainiko ditu ekitaldian.

Udaletxeko batzar aretoa, 12:00etan.

Itsasoari buruzko zikloa / Cielo sobre el mar



LASARTE-ORIA Zine Zikloa.

Okendo Zinema Taldeak Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz, Itsasoari buruzko Zine Zikloa antolatu du. Elkarrekin Together dokumentalak eman zion hasiera zikloari atzo. Gaur eta bihar, Sitio distinto eta Arte al agua dokumentalak ikusi ahalko dira. Davide Cabaleiro Sitio distinto-ko zuzendaria eta David Berraondo Arte al agua-ko ekoizlea saioetan izango dira. Sarrera, 5,50 euro.

Manuel Lekuna, gaur, ostirala eta bihar, larunbata, 20:00etan.

USURBIL Bertoak

Aitor Sarriegik eta Agin Laburuk lagunduta, kantu-bertsok-jira egingo dute. Ondoren bazkaria izango da Patri jatetxean. Bazkari-txartelak Patrin eskuratu behar dira: 20 euro. NOAUA!ko kulturaldiko ekintza.

Mikel Laboa plaza, 12:00etan.

USURBIL 'Oreina' filma

Donostiako Zinemaldian Irizar saria lortu zuen Oreina filma eskainiko dute. Sarrera, 6 euro. NOAUA!ko Kulturaldiko ekintza.

Sutegi kultur etxea, 19:00etan.

IGANDEA 18

LASARTE-ORIA Herritarren Bulego Ibiltaria

Lasarte-Oriako alkatea eta hainbat batzordeburu herritarren proposamenak eta kezak jasoko dituzte Herritarren Bulego Ibiltarian. Bitartean, haurrentzako puzgarriak eta tailerrak izango dira.

Atsobakarreko parkean, 10:00etatik 14:00etara.

LASARTE-ORIA 'Ana y Bruno' filma

Ana y Bruno animaziozko filma eskainiko dute, haurren zinea atalean. Sarrera: 3,80 euro.

Manuel Lekuona, 17:00etan.

LASARTE-ORIA 'La buena esposa' filma

La buena esposa filma eskainiko dute helduen zinea atalean. Sarrera: 5,50 euro.

Manuel Lekuona, 19:30ean.

URNIETA Antzerkia

Jon Braun familia ikuskizuna eskainiko dute Anita Maravillas eta Portal 71 konpainiek. Titereak eta umorea uztaizuz,

neba arreben arteko loturaz hitz egiteko, abenturaz eta maitsunez beteriko western batean. Sarrera: 3 euro.

Sarobe gunea, 17:30ean.

AGINAGA Ipuin kontalaria

Berdintasun ipuinak 4 eta 10 urte arteko haurrei zuzendua.

Aginagako ludoteka, 17:30ean.

USURBIL Kontzertua

eMe, Haritz Harreguyk, Nora Izagirrek eta Ruben Caballerok osatutako taldeak Beleak elurretan diskoko abestiak eskainiko ditu. Sarrera: 10 euro. NOAUA!ko kulturaldiko ekintza.

Sutegi kultur etxea, 19:00etan.

ASTEARTEA 20

LASARTE-ORIA Ipuin kontalaria

Pello Añorgak 4 eta 5 urteko haurrei ipuin miragarriak kontatuko dizkie.

Manuel Lekuonako haur liburutegia, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Kalejira

Udal musika eskolako ikasle eta irakasleek desfile alaia egingo dute Santa Zezilia musikariaren zaindariaren ohorez.

Manuel Lekuona kultur etxea, 18:30ean.

LASARTE-ORIA Batzar irekia

EH Bilduk Batzar Ireki berri bat egingo du udal hauteskundeetarako zerrenda osatzeko irizpideak zehazteko.

Antonio Mercero, 19:00etan.

OSTIRALA 23

LASARTE-ORIA Musika Topaketa

Ars Combinatoria bikoteak emanaldia eskainiko du, Danok Kideren XIV. Musika Topaketen barruan.

Ama Brigitarren komentua, 19:30ean.

ITSASOARI BURUZKO ZINE ZIKLOA



LABURPENA

Sitio distinto

Zuzendari: Davide Cabaleiro. **Gidoilariak:** Davide Cabaleiro eta Iván Batty. **Herr.:** Euskal Herria (2017). **Ekoizlea:** Zirriborro eta Pixel Films. **Hizkuntzak:** Euskera, galiziera eta gaztelania. **Iraupena:** 70 minutu.

Sitio Distinto, Galiziatik etorritako migrazio olatu ezberdinak erakusten dituen dokumentala da. XIX. mendeko azken urteetatik gaur egun arte egindako bidaia da. Burdinmeatzeetan, arrantza ontzietan edo industrian Euskal Herrira etorri ziren belaunaldietatik euskal nortasunean bizi diren gaur eguneko gazte galegoetara heldu arte.

Dokumentalari esker, ulertuko dugu zergatik heldu ziren galegoak Euskal Herrira; eta, batez ere,

zergatik geratu ziren. Hala nola, etorkin horiek toki ezberdin batera heldu zirenean sortu zituzten auzoak bertakoentzat toki ezberdinak bihurtu zirela erakusten du.

Denborarekin, bidaia honek, kultura eta hizkuntza minorizatuak dituzten bi herri hauek batu ditu eta elkarrekin maila musikalean, literarioan, sozialean eta kulturean proiektu ugari gauzatu dituzte.



LABURPENA

El arte del agua

Zuzendari eta gidoilari: Olivier van der Zee. **Herr.:** Euskal Herria (2017). **Musika:** Pascal Gaigne. **Ekoizlea:** Sincro Producción de imagen. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Iraupena:** 118 minutu.

Gerra Zibilaren ostean, Euskal Herria eta Galiziako arrantzaleek Atlantikoa zeharkatzen zuten. 60eko hamarkadan 5.000 bat arrantzale zituzten, 100 ontzi baino gehiago ziren. Orduan, 300.000 tona harrapatzen zituzten. Hamar urte geroago, tona kopurua ikaragarri murriztu zen, eta 1992an, Kanadak bakailaoaren arrantzaren luzamendua ezarri zuen. Oraindik ezin da bertan arrantzan egin.

Hilabeteak egiten zituzten Ternuan bakailaoa arrantzatzen. Bizi zuten egoera latza, ez zituzten lan egiteko baldintza onenak, erakusten ditu dokumentalak. Arrantzaleek Super 8 euskarriak grabatzen zituzten haien bizipenak, etxekoei erakusteko.

Irudi horiek, garaiko argazkiek eta Galiziako, zein Euskal Herriko arrantzaleen testigantzek osatzen dute *El arte al agua* dokumentala.



eta TXAPAK?

Non eta noiz jaso:

Azaroaren 20tik 22ra:

- Udaleko Euskara-zerbitzuan: 09:00-13:30
- Ttakunen: 09:00-13:00 eta 16:00-19:00

Azaroaren 23an: Okendo plazan: 16:00-21:00

Azaroaren 24an: Okendo plazan: 11:00-14:00

EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ azaroaren 23tik abenduaren 3ra



LASARTE-ORIAN BIZI,

BLACK FRIDAY

LASARTE-ORIAN EROSI

AZAROAK 23

- DECO 75 etxeko ehunkiak
- ARITZA mertzeria
- IMAGINE Jantzi Denda
- MAIANE Lurrindenda
- HALCÓN bidaiak
- ARREGUI elektrizitatea
- ALBA moda
- MABEL moda
- ORMAZABAL loradenda
- OLA markogintza
- NOAOA bidaiak
- LEDER oinetakoak
- ABREU bazarra
- AMAIA OLONDRIS podologia
- ITURBE zapata-denda
- SUKOA burdindegia
- NATURHOUSE
- Bideo LAGUNAK
- IRIGOYEN optika
- JOSEMA burdindegi sarraila-denda

